


euskara zure ahotik

EUSKARAAREN HILABETERA

2015EHO MARTXOAREN 5ETIK 27RA



Bigarren Hezkuntzako ikasleen lanak

MAKETAZIOA: Joseba Arozena.

LEGE GORDAILUA:
SS-230-94





AGURRA

Euskara zure ahotik

*"Pazientzia eta nazka mundu honetan
Zer dute probatzeko gazteek?
Grafittia bakarrik? Rocka? Eszeptizismoa?
Amen ez esatea dute ere
Ez uztea maitasuna hil diezaietela
Hitza eta utopia berreskuratzea dute
Presarik gabe eta memoriarekin gazte izatea dute
Haiena den historia batean kokatzea dute
Zahar goiztiar ez bilakatzea dute"*

Benedetti poeta uruguaiarrak 84 urte zituela idatzi zuen olerki hau hautatu dut zuentzat IRUNERO ale berezi honen agurrerako.

Nire hezurdurak 56 urte dituen honetan, zahar goiztiar goizegi bihurtu nintzelako, akaso, amen ez esatea duzuela aldarrikatu nahi dut, inorri ez diozuela maitasuna hiltzen utzi behar aldarrikatu nahi dut, gazteok hitza eta utopia berreskuratzea behar duzuela aldarrikatu nahi dut...

Munduari asko diozue emateko, euskarari asko diozue emateko eta hori igarri ahal izan dut zuek

idatzitako lerro bakoitzean: "Abbadia sekretua" liburuaren iruzkinean edo Euskararen Eguneko erreportajeetan eta bertsoan; Txispasen komikian edo Sara Cruces ikasle irundarrak idatzitako liburuaren inguruko iruzkinean, idatzi dituzuen ipuinetan, proposatzen duzuen eskulanetan, txisteetan eta atsotitzetan.

Eskerrik asko, beraz, zahar goiztiar ez bilakatzeagatik eta eskerrak ere zuen irakasle trebatzaileei zuen bidelagun izaten egiten duten ahaleginarengatik.

Irunen, 2015eko martxoan

Fernando SAN MARTÍN GUBÍA
EUSKARA ORDEZKARIA

Aurkibidea

DUNBOA

- Abbadia sekretua 5
- Euskararen Eguna bertsoekin ospatzen 10

IRUNGO LA SALLE

- Txispasen bidaia 6
- Ikasle batek idatzitako liburua 12

EL PILAR

- Esku-lanak 7
- Ipuina 11

SAN VICENTE DE PAUL

- Txistek 8
- Atsotitzak 13

TOKI ALAI

- Idazlana 9
- Hamabost egun 14


Abbadia sekretua



Aurten Fernando Morilloren “Abbadiaren sekretua” izeneko liburua irakurri dugu. Liburu honetan bi anaiak Abbadia gazteluan bizi ziren abentura kontatzen da. Beraien izenak Alar eta Kaiet dira eta beraien aitonak liburuaren bukaeran esaten die Antton eta Arnaud Abbadia izeneko anaien antza dutela. Alar zientzilaria zen eta Kaiet, berriz, oso ausarta. Hori dela eta, abenduaren 18an lehenengo mailako ikasleak Abbadia gaztelua bizitatzera joan ginen eta, ailegatzean, sarrerako ate gainean ikusi genuen jartzen zuela “Ez ikusi Ez ikasi”, Harrigarria !!! Esaldi hau askotan agertzen da liburuan eta esan nahi du ikasteko beharrezkoa dela lanean aritzea. Kanpotik ikusita oso gaztelu handia da eta harrizko animaliak ditu hormetan: txakurrak, sugeak, katuak, igelak, karkolak, sekulako krokodiloa sarreran... Teilatu azpian guri begira gargolak zeuden.


Sartzean, hormetan, zuloak ikusi genituen: izarrak ikusteko ziren. Barrukoa iluna zegoen, hormetan irudiak eta gora igotzeko sekulako zurezko eskailerak ikusi genituen. Beheko solairuan teleskopio gela dago eta leihoetatik Abbadia Eremua ikusten da. Lehenengo pisura igo ginen eta han logela, egongela, jangela eta liburutegia ikusi genituen. Liburutegian idazteko makina, kalkulagailuak eta zenbakiz betetako liburu handi bat daude. Ematen zuen Antton Abbadia momentu batetik bestera sartuko zela bere kalkuluak egiteko!. Kontatu ziguten elizaren azpian Abbadia eta bere emaztea, Virginie, kripta batean lurperatuta daudela. Bisita bukatzean paseo bat eman genuen gazteluaren inguruetatik eta hondartzaraino jaitsi ginen. Bisita oso interesgarria izan zen. Dibertigarriena izan zen elkarrekin goiza gaztelua ikusten pasatzea!!!! Anima zaitetze gaztelua bisitatzera!!!!

TXISPASEN BIDAIA



...eta hurrena Txispasen iraupen zehar bidaiatu eta urtebetetze potta izan zuen.

ESKU-LANAK EGITEN



1. Hasieran, kutxaren alboetan, 2 cm-tara markak egingo ditugu. Ondoren, egin ditugun markatxo guztiak, erregelarekin marra bat eginez lotuko ditugu.
2. Orain, puntzoiekin egindako marratik moztuko dugu, eta horrela, zulo bat geratuko zaigu kutxaren tapan.
3. Kutxaren piezaren goikaldean, 1 cm-ko zabalera duen marra egingo dugu, kutxaren albo batetik bestera, hau etzanda dagoela.
4. Ondorengo pausuan, taparen alboetan kola zuria botako dugu, eta kutxaren beste atalarekin elkartuko dugu.
5. Kutxa dekoratuko dugu, horren inguruan kola txuria botaz eta kolorezko kartulinak inguruan itsatsiz.
6. Kutxan lehenago egindako zuloaren taminako kartulina bat dekoratuko dugu, eta hau izango da antzerkiko eszenatokia.
7. Bukatzeko, komuneko tutuaren eta ping-pong piloten laguntzaz txontxongiloak egingo ditugu, pilota tutuaren gainean itsatsiz.

TXISTEAK

Irakasleak Jaimitori esaten dio:

- Zuzendaria hona etortzen denean hiru galdera egingo dizkizu: "Zenbat urte dituzu?" Eta zuk esango duzu: Hamar.

"Zenbat urte daramazu ikastolan ikasten?" Eta zuk esango duzu: Bi.

"Zer gustatzen zaizu gehiago, matematika edo hizkuntza?" Eta zuk esango duzu: Biak. Kontuz, ez zaitez okertu.

Zuzendaria iristen denean Jaimitori galdetzen dio:

- Zenbat urte daramazu ikastolan ikasten?



- Hamar
- Zenbat urte dituzu?
- Bi
- E, mutiko! Tonto aurpegia ikusi al didazu edo nahi didazu adarra jo?
- Biak

Haur batek dio bere amari ikastolatik etxera joandakoan:

- Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.



- Oso ongi, oso ongi! Eta zein da bigarren notizia?- galdetzen dio amak.

- Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa:

- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?

- 208, jauna- erantzun du ikasleak.

- Burugogorra, ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak?

- Bai, baina... gaur oliba hezur bat irentsi dut.





Kaixo, lagun. Badakit jada berandu dela, eta honek ez duela egoera aldatuko, baina nire azkenetan nabil eta gauza asko esan behar dizkizut hil aurretik.

Oroitzen zara elkar ezagutu genuen aldiaz? Guztiz arrotza zinen niretzat, arraroa eta oso konplexua. Etengabe entzuten zintudan esaten zenuena ulertu gabe, eta horrek gaizki sentiarazten ninduen, egia esan. Lehenengo unetik sumatu nuen zu desberdina zinela, horren goxoa eta epela, ezagutzen zintuztuten alboan laztan baten modukoa. Pixkanaka pixkanaka, zurekin harremana lortu nuen, eta orain ohorez beterik esan dezaket nire bizitzako momentu politenak zurekin batera igaro ditudala.

Gogoan dut udarako gau eztiak udalekuetako suaren aurrean ematen genituela, lagunartean zuk erakutsitako kantuen erritmoan izarrak zenbatuz. Gau

horiek oraindik azalean senti ditzaket begiak itxiz gero, gitarraren doinu lasaiaren xuxurlan galduz. Gazteak ginen, eta ametsetan bizi ginen, oraina gozatuz etorkizunaz kezkatu gabe. Logale ginen, baina ez zuen axola, egunsentia oraindik urrun baitzegoen. Non gelditu ziren, laztana, gau amaigabe horiek?

Hamabi urte nituenean, Florentziara joan ginen oportetan, dakizun bezala. Oso barregarria izan zen jatetxe bateko zerbitzariak ez gintuenean ulertzen, eta mimika saio irrigarri bat burutu behar izan genuenean eskaera egiteko. Sukaldaria bera etorri zen gurekin komunikatzeko asmoz, eta bezero guztiak barre algaratan hasi ziren hamaika saiakeraren ondoren lortu genuen arte. Azkenean, berandu egin zitzaigun eta pizza bat musu-truk jan genuen. Itzela izan zen.

EUSKARAREN EGUNA BERTSOEKIN OSPATZEN

Denek dakizuen bezala, abenduaren 3an, Euskararen eguna izan eta ospatu zen Euskal Herriko leku guztietan. Irundik hainbat aktibitate egin ziren eta Irungo ikasle, irakasle eta pertsona askok "post-it" bana idatzi genuen Euskararen alde Irungo plaza batean. Irungo eskoletan zenbait ekintza egin ziren eguna ospatzeko. Gure eskolara, Dunboa BHI-ra, bi bertsolari etorri ziren, Alaia Martin eta Jon Maia.

Liburutegira joan ginen ikasle guztiok bi saiotan, lehenengo saioan, lehenengo eta bigarren mailakoak joan ziren eta bigarrenean, hirugarren eta laugarren mailakoak. Gure saioa haien aurkezpenekin hasi zen, gure irakasleak egina. Segidan, bertsoak botatzen hasi ziren Alaia eta Jon, gure irakasleak emandako gaiekin. Gai guztiei buruz abestu zuten (irakasleak, ikasketak, amodioa, etab.) eta gutaz hitz egin zuten bertso batzuetan (adibidez hango neska beltzarana esanez).

Oso dibertigarria eta entretenigarria iruditu zitzaidan saioa eta bertsoak egiteko zeukaten abiadurarekin eta erreztasunarekin harrিতa geratu nintzen. Lehen hezkuntzako hirugarren mailan hasi ginen gu bertsolaritza egiten eta Alaia gure bertsolaritza irakaslea ez zen arren, gure eskolako beste klase batzuen irakaslea izan zen Dunboa LHIn. Betidanik bertsoak egin ditugu nire klasean eta Amaia Antzokian antzezten genituen kurtso bukaeran. Neri bertsolaritza asko gustatzen zitzaidanez, jangelan, bi egunetan, bi ordu bertsolaritza egiten nituen klaseko beste lagun batzuekin. Oso gogorapen

onak ditut bertsolaritzarekin, asko dibertitzen eta ikasten bainuen harekin.

Aurten eskolan egin den euskararen egunik bikainena iruditu zait eta gainera euskera bultzatzeko ideia oso ona izan dela uste dut, asko ikasten baita



bertsoekin. Horrelako ekintza gehiago egitea ondo egongo litzateke, denon onerako izango bailiteke.


Bertso honekin
Irukin hau bukatu
Horrelako egunik
Beharko errepikatu
Denon artean
Euskera bultzatu!

Duela urte arko, gizakia jato baino lehen, Lurrean, dinosauroak bizi ziren. Baina Lurra ez zion gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa, ita bat bezalakoa zen. Pangoa izanekoa.

Gure protogonistak, Rexy, T-Rex txikiak, goiz baten beste lagunekin, Tommi eta Haiyarekin, sumendi debekaturara joatea erabaki zuten.

Tommi, korrikagile lasi zen eta bat-batean deesgertu zen. Orduan, 3 ordu pasa ondoren, zulo handi batzara erortu aurkitu zuten.

Hayak bazelien hegan egitea kezaketa, baina oraindik ez zuen ikasi. Derrigorrezkoa zen ikastea Tommi salbatzeko. Bere bizitza arriskuan jarri, eta beste laguna salbatzeko zulo handira salto egitea erabaki zuen eta hegan egitea atera zen Tommiarekin.



Abentura honen ondoren, hirurak poz-gozik bueltatu ziren etxera, baina etxean zaudenean, hain gurasoak, atean itxolten zauden eta hailer errata oso hortitza egitea zioten.

Rexy: Barkatu amaiko... ez zen gure asmoa hain berandu bueltatzea etxera.

Ama: Bai, bai... baina zigortuta zaudu. Oso kezkatuta gaundun eta gainera sumendira joan zarete hainmenik gabe.

Hurrengo egunetan, etxetik goiz-goiz atara eta hondartzara joan ziren. Hondartzan lagun berri bat egitea zuten, Matilda izenekoa.

Matildak, urtebetez baxera gonbidatu zituen, eta gurasoak urtebetezaren agertu ziren.

Etxera esportuak joan ziren, baina barkamena eskatu, urtebetezaren josten ulzi zioten.

DBH 4 - JUNCAL G. / NEREA P. / IÑAKI A. / CARLOS G.
EL PILAR IKASTETXEA

‘El Reflejo de la Magia: Descubrimiento’


Álacer-eko lurralde nobleetan, bederatzireinu daude. Horietako batean, harrizko gaztelu bat dago mendixka baten gainean. Han, printzesa gazte bat bere aurrean dagoen paisaia behatzen du.

Izan ere, nahiz eta luxuz eta atentzios inguratuta bizi, Laidak ez du atsegiten printzesa izatea. Bere ama, Cerys erregina, hil zenetik, bere aitak alde batera utzi eta gaztelutik irteten debekatu dio. Pegaso izeneko bere zaldi zintzoarekin, Laidak bere kartzelatik ihes egiten du eta askatasunezko zenbait ordu lortzen ditu.

Baina orduak berehala egunetan bihurtzen dira, ez delako bakarrik gaztelutik joaten, baizik eta bere aitaren erreititik ere, konde misteriotsu baten laguntzaz. Bat-batean, Laida lurralde ezezagun batean dago, demonio, zaldi hegalaria, Lynch izeneko mutil bitxiarekin eta batez ere, magiaren konpainiarekin. Bertan denetatik gerta daiteke, panteratan bihurtzen diren katuetatik errealitate egiten diren amets ezinezkoetara.

Egilea: Sara Cruces

1999ko apirilaren 27an jaio zen,



Irunen, Gipuzkoa. Irungo La Salle ikastetxean ikasten du bi urteetatik. Txikitatik, irakurtzea atsegina du, batez ere fantasiako liburuak, hala nola, ‘Harry Potter’, ‘Los Juegos del Hambre’, ‘Memorias de Idhún’... Nahiz eta gaztea izan, zenbait liburu idatzi ditu, baina bakarrik ‘El Reflejo de la Magia: Descubrimiento’ argitaratzea lortu du. Istorio hau 2011ko udan idazten hasi zen. 2012an, Udaletxeak gazteei eskainitako sarietako bat lortu zuen, bere kontakizuna aukeratutakoenetako bat izatean. Gaur egun, 15 urteekin, DBHko 4. maila ikasten du La Sallen eta aldi berean idazten jarraitzen du.



AURRERANTZEAN, SEMEAK ERE GAUZAK BOTATA UZTEN DITU.

HAMABOST EGUN

Txikitan esandako nire lehen hitza euskaraz izan zen. Beti egon naiz harro ikasitako lehen hizkuntza euskara izan zela esateaz, gurasoak hemengoak ez izan arren, euskara ikasi zutelako bere garaian. Denborak berea egin zuen eta pixkanaka, txikitan ikasi eta barneratutakoa eskina batean ahazturik gelditzen joan zen... Hainbeste ordu euskaraz jolasean ibili ondoren, hainbeste aldiz amarekin euskaraz haserretu eta gero, nire barnean ez zen ia bere arrastorik gelditzen, eskolan hitz egiten nuena eta noiz behinka entzuten nuen musikarena besterik ez, baina ni ez nintzen konturatzen, nire eguneroko bizitzan horrek ez zuelako inongo eraginik. Egia esan, nire inguruan, ez zitzaion inori axola nik nire txikitako hizkuntza alde batera uztea, eta normala da, nire inguruan ez baitzuen ia inork euskara erabiltzen, ez zuen ia inork baloratzen... Eta une haietan aitortu behar dut, ni ez nintzela haiengandik desberdintzen, nik, haiek bezala, ez niola garrantzirik ematen.

Ekaina zen, jada uda zetorren eta ezinezkoa egiten zitzaidan pentsatuta nituen plan guztiak zenbatzea. Ikasturte gogor baten ondoren, eskertzen ziren iristear zeuden hiru hilabete horiek... Denbora azkar pasatzen hasi zen; bigarren maila bukatu, notak jaso eta gurasoek kurtsoan zehar egindako lanagatik zoriondu ninduten. Oporrak hartu eta festak iritsi ziren egun gutxitan, azkenean! Beti pentsatu dut hemen Irunen, udari hasiera ezin hobea ematen diogula, festa giro horrek ikasturte osoa ahazten laguntzen digula uste dudalako. Esandakoa, festak iritsi, ongi pasa eta hurrengo urtera arte, San Martzial. Berriz ere egun ahaztezina ekainak 30a. Martxa ona hartu zuen udak, egia esan. Egunak kalean pasatzen nituen lagunekin, ez nuen etxea ia zapaltzen eta nire azal zurixka kolorea hartzen hasia zen.

Ez ziren bi egun baino gehiago gelditzen udalekuetara joateko, baina ez nituen gogorik. Nik nire lagunekin gelditu nahi nuen hemen Irunen, hain ondo zihoan uda, hain ongi ari nintzen pasatzen... 15 egun luze pasa behar nituen ez dakit non, baina gutxienez nire lagun hobere-narekin nihoan hara eta ez zen hainbestera izango horrela. Ez genekien oso ondo nora gindoazen autobus hartara

igo ginenean, baina denek euskaraz egiteak harritu gintuen hasiera batetik, ez baitzen guk espero genuena. "Non sartu gara?" pentsatzen genuen behin eta berriz, "ez dira gu bezalakoak...". Horregatik, zehazki horregatik izan ziren hain izugarriak han igaro genituen hamabost egunak. Autobusa martxan jarri eta segituan hasi ziren beteranoak ohiko hainbat abesti kantatzen, gu biok geroz eta gehiago izutzen ginen bitartean. "Zer da hau?" galdetzen genion batak beste-ari, abesti alaiak baina zeharo ezezagunak baitziren guretzat, eta ez genuen gure burua, hamabost egunak pasata, kanta horiek abesten ikusten Irunerako bidaian. Hasieran arraroa egiten zitzaigun den-dena euskaraz egitea, eguneko 24 orduetan ez entzutea beste hizkuntzarik, baina egunak joan egunak etorri, primeran egokitu ginen giro hartara, jada ez ginen lekuz kanpo sentitzen. Oso lagun onak egin genituen, eta han ikasi nuen berriz ere euskara maitatzen. Ez nuen inolaz ere imajinatu nola inork senti zezakeen hizkuntza bat hainbeste, ez nuen inoiz pentsatu norbaitek euskara hainbeste maitatu, babestu, eta zaindu zezakeenik. Bernedok asko irakatsi zidan hamabost egun eskasetan. Izugarria da nola herri txiki batean gerta daitezkeen hainbeste gauza, nola aldatu dezakeen norbaiten egoera edo pentsatzeko modua. Pixkanaka guztiak ezagutu genituen eta ikusi genuen zenbat modu desberdinetan bizi dezakeen pertsona bakoitzak hizkuntza bat. Han bazeuden baserrian bizita, erderaz ez zekitenak; baziren baita gaztelania gorrotatzen zutenak ere, euskararen etsaitzat hartzen baitzuten; "euskalduna bazara, zergatik ez euskaraz?" esaten zigutenak gaztelaniaz egiten genuen bakoitzean; baita gure egoera berdinean zeudenak ere. Denetik zegoen han. Baina argi gelditu zitzaigun gauza bat: Bernedora euskaraz eta bakarrik euskaraz 15 egun bizitzera joaten ziren denak. Eta hori egin genuen guk ere, oso gustura. Haietako bat sentitu ginen azkenean, eta ezin duzue imajinatu zer polita den guztiak hizkuntza berdina batzea. Ezin duzue imajinatu zein garrantzitsu bihurtu ziren denak hain egun gutxitan, eta nola sentitu nintzen han. Badakizue zer den zauden lekutik kanpo ez dagoela ezer senti-

tzea? Gainontzeko mundua soberan egongo balitz bezala egotea? Ba al dakizue nola sentitzen den norbera, han dagoelarik, ezer gehiago behar ez duenean? Bernedon ez gintuzten baztertu haiek bezain ondo euskara ez erabiltzeagatik, ez gintuzten alde batera egin gure eguneroko bizitza euskaraz ez egiteagatik, justu kontrakoa egin zuten. Erabiltzera animatu, horrekin lagundu eta beti egon ziren prest gurekin hobetzeko. Irunen geundenean, ez zitzaigun burutik pasa horrelakorik biziko genuenik, ez zitzaigun bururatu, baina han, azkeneko bost egunetan, ez nuen nire burua handik kanpo ikusten, hain beharrezkoak bihurtu ziren denak... Oraindik jarraitzen dut faltan botatzen goizeroko gosari aurreko "Behien tulun tuluna", baita bazkaldu eta afaldu aurreko kanta bakoitza. Faltan botatzen dut han aurki nezakeen edozein irrifar, edozein besarkada eta edozein hitz goxo, nola esnatzen ginen edozein abestirekin eta loak hartzen genuen begiraleek kantatutako "lotara" kantarekin. Faltan botatzen ditut oraindik joku guztiak, egun aldrebesak, gaubela harrigarriak eta nire lagun minak, eta jada sumatzen nuen haien falta azkeneko egunean, autobuse-ra igo nintzen momentuan, eta lehenengo egunean gezurra zirudiena, azkenekoan bete egin zen, Irunera bueltan egun haietan ikasitako abesti guztiak kantatu genituenean.

Egun hartan bertan, abuztuak 23an, Donostiko geltokian denak agurtu nituen, noizbait berriro ikusteko esperoan. Irunera zihoan autobus bat hartu nuen orduan, eta inoiz baino arraroago sentitu nintzen momentu hartan, gidariak gaztelaniaz agurtu

ninduenean, hamabost egun pasa ondoren... Askoz ere zailagoa da hemen euskaraz eta bakarrik euskaraz mugitzea, ia ezinezkoa. Eta triste sentitu nintzen une batez.

Ettxera iritsi, gauzak utzi, gurasoei besarkada izugarria eman eta bazkaltzen hasi ginen. Ez nintzen isiltzen, edozertarako kontakizun bat neukan, eta istorio bat eta besteren artean, gelditu nintzen une batez. Amari begiratu nion, eta zera bota nuen:

-Ama, euskaraz bizi nahi dudala konturatu naiz egun hauetan.



- Euskara Arloa
- Euskara berri
- Euskara berri
- Euskara aberaratu
- Euskara Arloko eragileak
- Euskara irunera
- Euskara erri web bideoa
- Loturak

FOTOTEKA
Irudiak

DOKUMENTU KIDEATZALEA

Erabiltzailea:

Pasahitza:

Bizirik:

Barnealdea

Euskaraz bizi

- Loidi BEHA 2010**
- OURASOAK ETA SEME-ALABAK**
- EUSKARAZIO PRODUKTUEN KATALOGOA**
- ABIZENAK EUSKARAZ**
- MERKATARIENTZAT MATERIALA**
- NIERE BERTYOLARI**
- UDAL EUSKALTEGIAREN WEB ORRIA**
- ITZULPEN ZERBITZUA**

Gaurkotasuna

- Mitxelena aban da!
- BURUAILA berria
- Hondak euskarazko erretzen agerdi
- Dasturak berriz berria
- Euskara, gure lehen paterak? Eran zure kolore euskarari

[Berriak aurkitu](#)

Euskararen agenda

Urtia 2010

A	A	A	O	L	I
				1	2
3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	

[Berriak aurkitu](#)



Be al zurekin?
Non apete zan lekuak? Anu, lekuak eta irungo lekuak.

RSS - Gaurkotasuna

Diru-laguntzak

- Euskara-irabizle
- Ourasentzako laguntzak
- Euskara sustatzeko laguntzak
- Irabizientzako laguntzak

Zer behar duzu?

- Euskara irabiz
- Euskara erabil
 - Familian
 - Irabizientan
 - Abian
 - Irabiz
 - Lehiaketan
 - Erabiltze eta irabiz
- Euskara aberaratu
- Euskararen irabiz

Euskara Irunen

- #### Datuak
- Datu soziolinguistikoak
 - Hiritarren eskubideak, Udal irabiz
 - Euskararen irabiz
 - Irungo leku izenak
- #### Balibideak
- Balibideak
 - Software-a euskaraz
 - Agi irabiz
 - Produktuen katalogoa